



## EIBARKO BASARRIAK

KARMEL-en aurtengo 2'garren alearen 56/69 orrialdeetan pozarren irakurri neban gure basarri zerranda. Lehenago holako zerbait egina neukan, «Munibe» aldizkarian argitaratu neban lantxo batean (ikus «Munibe», XV, 1963, 138 orr.). Baina ez nituen ipini baillara sailez, eta KARMEL-eko zerrendak urrats bat aurrera egin dau kontu honetan. Izenetan ez genduke bardina esango. Zerrenda honetan herriak ahoz erabiltzen dituenean dagoz, eta preminazkoa genduke izena bere jatortasunean eta orain herriak erabiltzen dabena, bata bestearen ondorean ipiniaz agertu. Honela, hizkuntzak izan dituan aldaketak ikusiko gendukez, eta formarik jatorrena zein dan be bai. Honetarako bide luzeagoak jorratu beharra daukagu, baina ezinezkorik ez dago.

Hara, esate baterako, Iñaki Linazasorok agertu deuskun **Gipuzkoa'ko baserriak** — **Caseríos de Guipúzcoa** iturri ona badogu 1974'an zenbat basarri daren eta zer izen dauken jakiteko, ioan zan mendearen erdialdean, 1857'an, Diputazioak argitiaratu eban **Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa** beste iturri bat izango dogu, behar bada hobea. Hemendik aurrera, agiri zaharretan basarri izenok zelan erabili diran aztertu behar genduke, urtez urte bilatuko ditugun aldaketak ikusirik egiazko izena aurkitzeko. Honetaz badaukat fitxero bat hasia, eta behar bada guztiz

amaitu baino lehen argitaratuko dodana, eta bertarako jarraitu dodan plangintza azalduko dot, besteen probetxugarri izanngo dan ustean. Ze, saiakera honetan guztiok parte hartu geinke, batez be agiri zaharretara jo ahal dabenak. Agiri zaharretarko bide asko dare, baina batez ere basarri-etxeen eskriturak eta gure herriko bibliografia. (Gure herrian bezala beste edozein herritan be bardin egin leike lan hau, oraindik inun egiazko azterketa zehatz bat egiteko dagoanez).

Eibarko basarrien lau edo bost adibide edo exenplo jarriko ditut, izenburu lez, azterketetatik ateratzen danik izenik jatorrena ipini eta ondorean (parentesis tartean) gaur ahoz erabiltzen dan forma, eta azpikaldean urtez-urtezko zerrenda. Hara:

### AMEZABALEGI (Amazabalei)

Amezabalegui, 1498 (Toki izen bezala agirian).

Abanzabalegui, XVI. mendean (Deitura: «Joanes de Abanzabalegui, chantre beneficiado de la parroquia de San Andrés, que falleció antes de 1603»).

Abenzabalegui, 1600 (Deitura, agirietan).

Abanzabategui, 1757 (Pedro de Abanzabalegui, herriko alkate).

Abanzabálegui, 1857 (Probintziako **Nomenclátor**-ean).

Abanzabalegi, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

### MADALTZAGA (Maltzaa)

Mabalzaga, 1384 (Elgoibarko «carta-puebla»n).

Madalzaga, XVIII. (Bidegintzako agirietan).

Malzaga, 1747 (Etxe talde bat. Hauzo bezala).

Malzaga-emeticoa, 1857 (**Nomenclátor**-ean hauzoko etxe bat).

Maltzaga eta Maltza, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

**Amezabalegi** eta **Madaltzaga**, izenak zelan aldatzen diran ikusteko bi adibide polit ditugu Euskaraz, **b**, **m**-ra eta **d**, **b**-ra sarri aldatzen dira. Adibidetzat ditugu, asate baterako: Benta = Menta, eta Eibarren bertan Villa-flores = Millafros, eta zaleak gara Bartolo, Martolo egiten. Gainerakoan be, **d**-tik **b**-ra zerbait gutxiago izanarren, antzerako aldakuntza gertatzen da.

Hemendik konturatu geinke, 1498'ko agiri batean, dokumentu batean, **Amezabalegi** badago, **Amez-zabalegi** dala, **ametz** arbolak daren, edo eren, toki zabal une bat, gero **m**, **b**-ra bihurtzean zentzuna bere be aldatuaz.

## JAKINGARRIAK

Gaurko Maltzaa barriz, aurkitu dogun agiririk zaharrenean, Elgoibar huri-bildu izendatzean, hau da «carta-puebla» hartzean, 1384'an, Mabalzaga. Baina kasu honetan, lehenagotik **d**, **b**-ra bihurtua, baina XVIII-garren mendean oraindik **m**-kin be aurkituko dogu bidegintzako agirietan, **Madalzaga**. Honela argi dago **mađari-leku** izena dala, eta ez beste.

Letra aldatzean baino sarriago egiten dira laburpenak, inoiz itxura galtzera arte, eta hemen da hain zuzen agiriak argirik gehien emon leikeana.

Hara hemen laburpen adibideak:

### EGIGUREN (Eguren)

Eguiguren, 1557 (Deitura, Antón de Eguiguren).

Eguiguren, 1600 (Basarri izena agirietan).

Eguiguren, 1602 (Martin de Eguiguren, herriko alkate).

Eguren, 1857 (**Nomenclátor**-ean).

Eguren, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

### IRAEGI (Irei edo Irai)

Iraegui, 1339 (Toki izena, agirietan).

Iraegui, 1493 (Hauzo bezala agertzen da agirian).

Iraegui, 1662 (Deitura).

Iraegui-emeticoa, 1857 (**Nomenclátor**, hauzoko etxeetako bat).

Iraegui, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos**).

### IRARRAGORRI (Iragorri)

Irarragorri, 1600 (Basarri izena, agirian).

Irarragorri, 1615 (Deitura, «Domingo de Zaloña Irarragorri probó su hidalguía ante la Justicia ordinaria de Eibar, en 1615»).

Iragorri, 1857 (**Nomenclátor**-ean).

Iragorri, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos**).

Hemen garbi ikusten da zelako aldakuntzak egin diran laburpenetatik. Jatorra, osorik ipintzea da. Kontuan izan deiturak, apellidoak, basarrietatik datozela, eta lehenagoko agirietan basarri izen bezala ere ondo azaltzen diralarik, ez dago arrazoirik aldatzeko, ahoz esan leike oker, baina idazterakoan, gutxienez, ondo erabili (honek ez dau esan nahi ahoz be osorik erabiltzea hoba eztanik, nekezagoa bada ere, osorik erabiltzera ahalegindu behar ginake).

Izenak agirietatik jasotzean, deiturak basarritik datozen legez, basarriak eurak leku-izenetik hartuak dira. Honegatik, urtez-urte ordenatzean, nondik hartuak edo zer diran jarri: toki-izena, basarri izena, deitura edo apellidua.

Beste fenomeno batekin ere konturatzen gara. Itxura aldatzeaz. Ahoz-ahoz erabiliaz, izen askok, euren egiazko forma jatorra galdu dabe, eta hemen be, inoiz nekeza egiten bajaku be, ahalik eta osatuen ipini beharra dogu.

Hara, fenomeno honen adibide batzuk:

### AREXITA (Arikitxa)

Arexita, 1558 (Deitura, Pedro López de Arexita, herriko alkate).

Arexita, 1600 (Gaur Arrate-balletzat ezagutzen dana «Cofradía de Arexita» zan).

Arijita, 1857 (Probintziako **Nomenclátor**-ean).

Arikitxa, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

### EIZKOAGA (Eizkua)

Eizcoaga, 1600 (Basarri izena, agirietan).

Eizcoaga, 1857 (Probintziako **Nomenclátor**-ean).

Izkua, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

### GOROSTIETA (Gorosta)

Gorostieta, 1600 (Deitura, «Martín de Gorostieta, miembro del Jurado ejecutor de la villa»).

Gorostietas, 1601 (Hauzo bezala agiri batean).

Gorosta, 1794 (Deitura, Andrés de Acha Gorosta).

Gorosta, 1857 (**Nomenclátor**-ean).

Gorosta, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

### OTAOLA (Otola)

Otaola, 1600 (Basarri agiria).

Otaola, 1612 (Deitura, Domingo de Otaola herriko alkate).

Otaola, 1857 (**Nomenclátor**-ean).

Otola, 1974 (I. Linazasoro, **Caseríos de Guip.**).

Horrela aldatu dira gure basarrien izenak.

Agirietako izena, irakurlea konturatuko zan bertako grafiaz jasotzen dogula.

## JAKINGARRIAK

Hauzo izenetako aldakuntzak haundiagoak eta okerragoak dira. Joan zen mendearen erdira arte, ehundaka urteetan euki eben izen berak iraun eban, baina Cadiz-ko Konstituzioaren ondorean aiuntamentuetan etorri ziran aldakuntzetatik hauzoak eratzeko moduak be aldatu ziran. Eta, hau, gure aiuntamentuak euren erruz egindako hutsa da. Aginaga, Arrate, Gorosta, Mandiola eta Otola dira oraingo hauzo edo ballarak. Baina XVI-garren mendetik joan zan mendearen erdira arte, gutxienez, bestelako erakunde bat egoan, agirietan «Cofradia» lez agertzen diranak, eta hiru baino ez tira: Akondía, Arexita eta Soraen.

Honek zer ziran eta nundik nora arte, kontatzen hasiko bagina luzeegi joango ginake eta hobe dogu urrengorako laga. Gainera, hiru «Cofradia» honek zer ziran jakitea oso interesgarria deritzagu Eibarko herriaren gobernamentua historian zehar zer izan dan jakiteko. Beste batean jarraituko dogu honegaz.

**Juan San Martin**

BURNI JORAKO, SUTEGIAN

BAI ERABILTZE LUZEAN

BAI AZKAR-AZKARREKOAN...

(ESTAMPADOS-FORJADOS DELAKOAN)

“REMIGIO ETXEBERRIA”

**Txonta, 12 — EIBAR**